

LANAREN EKONOMIA IKASTAROA 5. GAIA

OTAZUA GARMENDIA, GARIKOITZ

5. GAIA

LANGABEZIA ETA

ENPLEGUAREN

PREKARIETATEA

Lan merkatuan desorekak daudela esaten dugunean gehiegizko eskaintza edo gehiegizko eskaria daudela esan dezakegu. Nolanahi ere, kapitalismoaren historian zehar langabezia errealitate iraunkorra izan da. Horregatik, gehienetan gehiegizko eskaintzari buruz hitz egiten ariko gara: dauden lanpostuak baino pertsona gehiago daude lan egiteko prest. Nolanahi ere, lan merkatu berezi batzuetan gehiegizko eskaria ere gertatzen da, lanbide jakin batzuetan adibidez.

Badaude beste lan arazo batzuk ere, eta funtsezkoena enpleguaren prekarietatea da. Atzeraldi garaietan lanpostu gutxi sortzen dira eta, horrez gain, sortzen direnetako asko kalitate baxukoak dira; bada, kalitate baxu horrek bere horretan jarraitzen du oparotasun garaietan. Lanpostuen parte baten kalitate faltak eragin du lan merkatuaren egitura dual edo segmentatua, 3. gaian landu duguna. Enpleguaren prekarietateak langile kategoria jakin batzuetan du eraginik handiena (gazteak, emakumeak, prestakuntza maila txikiko edo eskarmentu gutxiko pertsonak, atzerriko langileak), baina gero eta arazo hedatuagoa da.

1. Langabezia motak

Abiapuntu gisa, kontuan hartu behar dugu langabezia fenomeno konplexua dela eta kausa bat baino gehiago dituela. Edozein ekonomiari begiratzen diogula ere, langabezia tasa langabezia mota desberdinen konbinazioaren emaitza da eta, praktikan, zaila da mota horietako bakoitzaren pisua zehaztea.

Langabezia frikzionala

Beti existitzen da, baita enplegu beteko garaietan ere era marjinalen. Lan merkatuan dauden lanpostu hutsei buruzko informazioren inperfektutasunak eragiten du. Kontratazio eta kaleratzeen etengabeko dinamikaren ondorio da, eta baita Biztanleria Aktiboan pertsona berriak sartzearen ondorio ere, pertsona horiek denbora dezente beharko baitute beren nahien eta aukeren araberako lanpostu egoki bat aurkitzeko.

Langabezia frikzionala murrizteko ezinbestekoa da dauden lan aukerei buruzko informazioa hobetzea, eta hori lortzeko lanpostu hutsei eta lan bila dabiltzan

pertsonei buruzko informazio osoa bilduko duten enplegu zerbitzuak sortu behar dira edo zerbitzu horien eraginkortasuna hobetu behar da funtsean¹.

Urte sasoiko langabezia

Garai oso zehatzen amaieran (eguberriak, udako oporrak, uztaldiak, etab.) sistematikoki sortzen dena, sektore ekonomiko jakinetan (nekazaritza, turismoa) eta faktore klimatikoen edo sasoikoen ondorioz. Sarritan lurralde jakin batzuetan kontzentratzen da, eta hura ezabatzeko beharrezkoa da ehundura produktiboa dibertsifikatzea, hau da, urteko beste garai batzuetan lanpostuak sortuko dituzten jarduera ekonomiko berriak sortzea.

Langabezia ziklikoa edo keynestarra

Jarduera ekonomikoaren jaitsieraren ondorio da, eta kaleratzeak eragiten dituen eskari globalaren jaitsierarekin lotuta dago. Enpresek ekoiztiko produktuen eskaria jaisten bada, gutxiago produzituko dute eta, hortaz, langile gutxiago beharko dituzte.

Egiturazko langabezia

Informazio faltak eta jarduera ekonomikoa jaitea eragiten duten egoerek (sasoikoak ala ez) ez dute zerikusirik langabezia mota honekin. Aldiz, lan eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka eragiten duten faktoreen ondorio da:

- Lan eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka kualitatiboak, enplegu bila dabilzan pertsonen prestakuntza eta lanpostuen eskakizunak bat ez etortzearen ondorioz gertatzen direnak. Lanpostu hutsak dauden arren, ezin dira pertsona langabeekin bete. Aldaketa teknologiko bizkorren ondorioz gertatzen da. Kasu honetan, trebakuntza eta lanbide birziklapeneko politikak aplikatu behar dira.
- Lan eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka kuantitatiboak, dagoen lanpostu kopurua lan eskaintza baino motelago haztearen ondorio direnak. Hainbat alderdirekin dute zerikusia:
 - Faktore demografikoak: adibidez, belaunaldi oso jendetsuak lanean hasteko adinera iristea edo kolektibo berriak agertzea (garai batean emakumeak, esaterako). Erretiro aurreratua hartzeko edo heziketa etapa luzatzeko politikak era honetako arazoak arintzen lagundu dezakete.
 - Faktore produktiboak: sektore industrial tradizionalen krisien ondorio izan daitezke, une zehatzetan lanpostu asko suntsitu baitaitezke jarduera sektore eta eskualde jakinetan. Produkzio aparatua birmoldatzeko eta dibertsifikatzeko politikak aplikatu behar dira enplegu aukera berriak sortzeko, baina politika horien eragina ez da berehalakoa izaten; gainera, ez diete laguntzen enplegua galdu duten pertsonei, profil profesional berriak behar baitira.
 - Faktore teknologikoak: produkzio prozesuetan produktibitatea areagotzearen ondorio izan daitezke, teknologiaren hobekuntza dela

¹ Beveridge-ren kurba deritzonak langabezia tasaren eta lanpostu hutsen tasaren (bete gabe dauden lanpostuen ehunekoa guztizko lanpostuekiko) arteko erlazioa ezartzen du lan merkatu baterako, denboraldi jakin batean. Beheranzkoa da; izan ere, zenbat eta handiagoa izan langabezia tasa, orduan eta txikiagoa izango da lanpostu hutsen tasa, eta alderantziz. Kurba koordinatu jatorritik oso urrun badago, enplegu zerbitzuen eraginkortasuna txikia dela edo lana bilatzeko motibazio handirik ez dagoela esan nahiko du.

eta. Aurrerapen teknologikoek lanpostuak sortzen eta suntsitzen dituzte aldi berean, eta haien eragina oso desberdina da eskualdearen edota kolektiboaren arabera. 80ko hamarkadaz geroztik, lan denbora murrizteko eta lana (produktiboa nahiz etxekoa/zainketakoa) banatzeko politikak proposatu izan dira arazo honi aurre egiteko, sistema produktibok gero eta langile gutxiago behar baitituzte. Gai hau 6. gaian landuko da.

- Lan merkatuaren zurruntasuna: soldaten malgutasun ezarekin, kontratazioarekin eta kaleratzeekin erlazionatutako mugekin, eta langileen mugikortasun faltarekin du zerikusia. Ikuspuntu neoklasikotik gehien aztertu diren alderdiak dira, eta hurrengo epigrafean eta 6. gaian landuko ditugu.

2. Langabeziaren azalpen tradizionalak

2.1 Azalpen neoklasikoa

3. gaian aztertu dugun moduan, eta teoria neoklasikoaren arabera, merkatuan eskaintzen eta eskatzen den lan kantitatea soldaten mende dago, eta langabezia soldata altuegien ondorio da. Soldatak behar beste jaitsiko balira, langabezia desagertu egingo litzateke.

Langabezia ez desagertzea soldaten beheranzko zurruntasunaren ondorio da, eta hori hainbat faktoreren ondorio izan daiteke:

- Estatuko erregulazioak existitzea, hala nola gutxieneko soldatak.
- Epe jakinetan soldata igoerak aurreikusten dituzten hitzarmen kolektiboak existitzea.
- Langabezia prestazioak existitzea, langileen erreserba soldatak igo baititzakete eta enplegua bilatzeko motibazioa ken baitezakete.
- Sindikatuen esku-hartzea, mugikortasun geografiko edo funtzionala saihestu edo horien aurkako aldarrikapenak antola ditzaketelako.
- Insider-outsider ereduak eta eraginkortasun soldaten teoria, 4. gaian dagoeneko azaldu ditugunak, eta soldaten eta produktibitatearen etengabeko egokitzapena zalantzan jartzen dutenak.

Ikuspuntu honetatik, neurri hauek har daitezke langabeziaren aurka borrokatzeko: lan merkatua desarautu, era lehiakorragoan funtziona dezan; langabezia prestazioak murriztu; sindikatuak ahuldu; kontratatze eta kaleratzeko baldintzak malgutu; eta soldatak malgutu, soldata enpresak une bakoitzean dituen baldintzetara egokitu dadin ahal bezainbeste. 6. gaian funtzionamendu hori lortzeko neurri zehatzak azalduko dira eta haien abantailak eta desabantailak adieraziko dira.

2.2 Azalpen keynestarra

2. gaian azaldu den moduan, langabeziaren jatorria ez dago lan merkatuan, ondasunen merkatuan baizik. Zehazki, jarduera ekonomikoa ekonomiaren gaitasun produktibo potentzialaz azpitik egotearen ondorio da langabezia. Enpresen jarduera ekonomikoa eskari globalaren mende dago.

Ekonomiaren eskari globala eragile ekonomiko guztien gastuaren batura da:

$$EG = K + I + G + (X - M)$$

Modu oso oinarrizkoan, hau esan dezakegu:

- Kontsumoa= etxeko ekonomien gastua, batez ere kontsumo ondasunena
- Inbertsioa= enpresek kapital ondasunak erostea
- Gastu Publikoa= sektore publikoak azpiegituretan, prestazioetan eta ondasunak erosten egindako gastua
- Esportazioak (X)= atzerrian bizi direnek erosten duten produkzio nazionalaren zatia
- Inportazioak (M)= bertakoek atzerrian fabrikatutako produktuak erostea

Etxeko ekonomien kontsumoak aurreikusteko moduko portaera du: igo egiten da oparotasun garaietan (eta enpresen salmentak igo egiten dira ondorioz) eta jaitsi egiten da enplegua edo soldatak jaisten direnean.

Inbertsioak, aldiz, gorabehera gehiago izaten ditu. Inbertsio prozesua konplexua da: enpresarien aurreikuspenekin du zerikusia, informazioa ez da osoa, eta hainbat faktorek (giro politikoa, interes tasak, produktu berriak, etab.) dute eragina. Inbertsio jarduera handia dagoen garaietan, eskari globala enplegu bete bermatzeko moduko mailetan kokatzen da, baina inbertsio jarduera txikiko garaietan, eskaria ez da nahikoa eta langabezia arazoak agertzen dira. Errezeta keynestar nagusiaren arabera, eskari txikiko garaietan Estatuak esku hartu behar du, eskaria aktibatuzko neurriak hartuz: gastu publikoa igo, pertsonentzako subsidioak, ondasunak eta zerbitzuak erosi, etab.

Dena den, kanpo sektoreak gaur egungo ekonomietan duen garrantzia ere kontuan izan behar da. Hala, gastu publikoa areagotuta edo subsidioen bidez sortutako hedapenaren parte bat kanpora joan daiteke inportazioen (M) bidez, eta, ikus dezakegun moduan, inportazioek eskarian ez dute gehitzen, kentzen baizik. Horrela, aldameneko ekonomiek aterako diote onura hedapenari. Baina horrek ez du esan nahi eskaria areagotzeko politikak ez direnik eraginkorrak ekonomia irekietan, nahiz eta eraginkortasun apur bat galdu.

Bestalde, eta esan dugun moduan, langabeziaren arazoa konpontzeko soldatak jaitea gomendatzen da ikuspegi neoklasikotik, baina ikuspegi keynestarretik hori kaltegarria izango litzateke, kontsumoaren jaitsiera eragingo lukeelako, eta, hortaz, baita eskariarena ere. Baina eskariaren kanpoko parteari erreparatzen badiogu, soldatak jaiteak esportazioak bultzatuko litzake.

3.1. Langabeziaren eta inflazioaren arteko erlazioak: Phillips-en kurba eta NAIRU


50eko hamarkadaren amaieran, A. W. Phillips britainiar ekonomistak soldata nominalen eta langabeziaren arteko erlazioak ezarri zituen, 85 urteko epe baterako Britainia Handiko ekonomiaren analisi empirikoa eginda. Phillips-ek egiaztatu zuen erlazio horiek nahiko egonkorak eta homogeneousak zirela, eta alderantzizkoak, hau da, hedapen faseetan (langabezia jaisten denean) soldaten aldaketa erritmoa batez bestekoa baino handiagoa zela eta atzeraldian (langabeziak gora egiten duenean) batez bestekoa baino txikiagoa. Langabezia Tasa Naturala (LTN) prezioen egonkortasunarekin (zero inflazio maila) bateragarria litzatekeen langabezia maila da. Ez dauka zertan enplegu beteko maila bat izan beharrik². 60ko hamarkadan, ikuspegi keynestarreko ekonomistek, Phillipsek egindako lanean oinarrituta, inflazio tasaren eta langabezia tasaren arteko erlazioa (alderantzizkoa) ezarri zuten,

² 60ko hamarkadan, maila oso baxuan zegoen ekonomia garatu gehienetan. Gerora, badirudi igo egin dela.

ekonomia osorako. Horrek esan nahi du hedapen ekonomikoko garaietan langabeziak behera egiten duela eta soldaten eta prezioen igoera erritmoa bizkortu egiten dela. Horretatik ondorioztatzen da, ekonomia nazionalerako, inflazioaren eta langabeziaren arteko erlazioa nahiko egonkorra dela (1. irudiko Phillipsen kurbako puntuak).

Eta Gobernu baten politika ekonomikok konbinazio horiek kontuan har ditzake, herrialde bakoitzeko lehentasun ekonomikoen eta sozialen arabera, komenigarritzat jotzen diren langabezia eta inflazio mailak lotzeko politika ekonomikoa ezartzeko. **Gastu publikoa handitzeko edo zergak jaisteko politiken bidez enplegu betea lor zitekeen, eta baita horrek inflazio moduan izango lukeen kostua ere?????**. Hala, kostua gehiegizkoa bazen, nahikoa zen politika murriztaileak ezartzea. "Stop and go politikak" deiturikoak dira horiek, eta bazirudien gobernuek "ekonomia gidatu" zezaketela haien bidez.


1. irudia. Phillipsen kurba



Iturria: egileak sortua.

70eko hamarkadatik aurrera, ekonomia garatuetako langabezia maila handiak eta inflazio maila handiak (estagflazioa) zirela eta, Phillipsen kurban langabeziaren eta inflazioaren artean ezarritako alderantzizko erlazioaren egonkortasuna zalantzan jarri zen. Horrek polemika handia eragin zuen, eta zalantzan jarri zen eskari politikak ezartzea komeni ote zen. Era berean, ereduaren egokitzapen aurreikuspenak sartzeko aukera ere hartu zen kontuan, eragile ekonomikoek hurrengo urtean prezioek zer igoera izan dezaketen aurreikusteko, batez ere inflazio testuinguruetan. Izan ere, aurreko urtean prezioak igo egin baziren, langileek urte honetan ere igo egingo direla pentsatuko dutela jo daiteke, eta hortaz, aurreko urtean baino soldata igoera handiagoak eskatuko dituztela, ondorioz inflazioa igoaz. Soldata nominalak prezioen azpitik igotzen diren bitartean (soldata errealak jaitsieran), enplegua sortu eta langabezia jaitsiko da. Baina epe ertainean edo luzean soldatak prezioen neurri berean igotzen badira, soldata errealak egonkortu eta enplegu eskaria jatorrizko mailara itzuliko da. Soldatak-prezioak-soldatak espiralak langabezia jaitea saihestu eta inflazioa igoaraziko du.

2. irudia. Phillipsen kurba egokitzapen aurreikuspenekin



Iturria: egileak sortua.

2. irudian ikusten den moduan, eskaria bultzatuz gero 1etik 2ra igaroko ginateke, baina epe ertain-luzean, egokitzapen aurreikuspenak direla eta, 2tik 3ra igaroko ginateke, hau da, jatorrizko langabezia mailara. Berriz ere eskaria bultzatuz gero, 3tik 4ra igaroko ginateke, baina epe ertain-luzean, soldatak prezioen maila berean igoz gero, 5era igaroko ginateke. Nolabait esan liteke Philipsen beheranzko kurbak dauzkagula epe laburrean (lerro etena), baina epe luzean lerro zuzen bertikal bat agertzen dela (lerro jarraitua) Inflazioa azeleratzen ez duen langabezia tasa edo NAIURU (Non Accelerating Inflation Rate of Unemployment), LTNaren antzeko definizioa duena, langabezia tasa egonkorra da epe ertain eta luzean, eta ezin da aldatu eskaria areagotzeko politiken bidez. Langabeziaren egiturazko zatia izango litzateke³.

Planteamendu honek eragin handia izan du gobernuen politika ekonomikorako estrategietan. Eskari politikak ez direnez eraginkortzat jotzen langabeziaren kontra borrokatzeko, aurrekontu diziplinari eustearen aldeko jarrerak indartzen dira, hau da, eskaria bultzatzearen gobernuak gastua handitzearen edo zergak jaistearen kontrako jarrerak. Ikuspuntu horietatik, langabezia eskaintzan eragina duten neurrien bidez murrizteko neurriak hartu behar dira. Horien artean, lan merkatua malgutzeko eta desarautzeko politikek paper garrantzitsua izan dute, eta 6. gaian jardungo gara horien eragin positibo eta negatiboak buruz.

Ekonomista neo-keynestarrentzat, langabezia tasa epe luzera aldatzeko mugak egotea bateraezina da tasa horretan epe ertainean eragiteko aukerarekin. Atzeraldi garaietan eskaria areagotzeko politikak aplikatzearen alde daude, atzeraldiaren ondorio negatiboak arintzeko.

³ Askok eztabaidatu izan da NAIURUK erreferentzia teoriko gisa duen balioari buruz eta, batez ere, erreferentzia enpiriko gisa duenari buruz (kontrastatzeko zailtasunak direla eta).

2.3 Lan merkatuaren histeresia

90eko hamarkadan, Europan langabezia AEBetan eta Japonian baino handiagoa eta iraunkorragoa zen, eta, krisiaren ostean, ez ziren aurretiko enplegu mailak berreskuratu. Hedapen garaietan, langabezia tasaren jaitsiera txikia zen eta aztarna txikia uzten zuen garai horien ostean. Aldiz, atzeraldi garaietan sortutako langabezia metatu egiten zen, iraupen luzeko langabezia bihurturik. Horixe da *histeresi*⁴ izeneko prozesua.

Bilakaera hori Europako lan merkatuaren zurruntasunaren ondorio da. Zurruntasun hori dela eta, enpresek ezin dituzte beren langile beharrak libreki kudeatu: soldaten kostu altua, kaleratzeko eta kontratatzeko zailtasunak, negoziazio kolektiboaren egitura desegokia, gehiegizko babes kaleratzeen inguruan, gutxieneko soldata altuak eta babes sozialeko sistema "eskuzabalak", etab. Arrazoibide hori laburbiltzeko *euroesklerosi* terminoa sortu zen eta planteamendu politiko neoliberalekin lotuta dago, lan merkatuaren funtzionamenduan Estatuaren presentzia instituzionala eta arautzailea murriztu eta Europako eredia AEBetakora gerturatzearen aldekoak baitira.

Nolanahi ere, eta analisiak erakusten dutenez, herrialdeetako langabezia tasen arteko aldeak ez daude era isolatuan kontuan hartutako alderdi instituzionaletan oinarrituta, eta ez dirudi adierazgarriak direnik langabezia tasetan ehuneko 10era arteko aldeak egotearen arrazoiak azaltzeko, Europar Batasuneko herrialde batzuetan halaxe gertatzen da eta. Are gehiago, lan erakunde horien konbinazioan dauden aldeak eta haiek testuinguru sozial desberdinetan aplikatzea dira enplegua sortzeko oztopoak sortzen dituztenak. Zentzu horretan, gomendioa argia da: herrialde desberdinetan lan merkatua eta babes sozialeko sistemak antzeko eran erreformatzen badira emaitzak oso desberdinak izan daitezke langabezia tasaren jaitsierari dagokionez. Analisi horietatik ateratzen den ondorioa da⁵ Europako langabezia tasa altuak eskaintzan eta eskarian elkarren segidan gertatutako shock-en eta sistema instituzional zurrunegien (lan merkatuaren funtzionamendua eta gizarte ongizateko sistemak) ondorio direla, baina erantzukizun osoa ez zaie sistema instituzional horiei egozten, era horretan korrante neoliberaletatik aldentuta.

3. Enpleguaren prekarietatea

Enpleguaren prekarietatearen kontzeptura lehen hurbilketa bat egiten badugu, enpleguaren behin-behinekotasuna adierazten duela esan dezakegu. Dena den, ikerkuntza batzuek prekarietatearen kontzeptua zabaldu egin dute, eta beste enplegu mota batzuk ere sartu dituzte bere baitan, hala nola etxean egindako lana edo norberaren kontura egiten dena, arauz kanpoko lana ezkutuko ekonomian edo lanaldi partzialeko lana. Era honetan, enplegu baldintzak ez ezik, lan eta soldata baldintzak ere sartzen dira kontzeptuaren analisisan. Zentzu horretan, lan egoera bat prekarioa dela esango genuke lan baldintzak zuzenean edo zeharka hondatuak izan badira. Hala, enplegu prekarioetan soldatak txikiagoak eta lan baldintzak okerragoak izaten dira, eta aukera gehiago daude enpresek gehiegikeriak egiteko. Modu are zabalagoan, prekarietate sozialaz ere hitz egin izan da pertsona batek duen enpleguak ez dionean aukerarik ematen posizio edo bizi maila jakin batean

⁴ Histeresia zerbaitek (material batek, adibidez) bere propietateetako bat kontserbatzeko joera da, behin propietate hori eragin duen estimulua desagertu denean.

⁵ Layrd-Nickell-Jackman eredia

edo lanbide batean finkatzeko, ezin duenean egonkortasunik lortu etorkizuna planifikatzeko.

4.1 Prekarietatearen dimentsioak

Ikuspuntu horretatik, langileari orain nahiz etorkizunean ongizate eta segurtasun maila egokirik ematen ez dioten lan egoerekin lotzen da lan prekarietatea, eta egoera horretan langilea kaltea jasaten ari dela eta baztertuta dagoela ikusiko genuke. Prekarietatearen baitan, dimentsio hauek bereiz daitezke:

Ordainsari eskasa

- Lege urraketak soldatak jaisteko (kategoria baxuagoetara atxikitzea, aparteko orduak ez ordaintzea, soldata diskriminazioa)
- Langileek boterea galtzea kolektibo gisa: negoziazioa indibidualizatzea, ordezkagarritasun sindikala galtzea
- Lan harremanaren kudeaketa: jarraitasunik eza lanpostuan, antzintasuna metatzea saihesteko

Segurtasunik eza eta ziurgabetasuna

- Egokitzeko eskari etengabeak
- Laneko ezbehar kopurua eta lanbide gaixotasunak ugaritzea
- Enpleguaren behin-behinekotasuna eta langabeziaaldiak areagotzea

Enpleguaren eskakizunak areagotzea

- Lan erritmoak biziagotzea eta baliabidegabeziak direla eta esfortzu pertsonal handiagoa eskatzea
- Zeregin gehiago jartzea, malgutasun funtzional handiagoa eskatzea, etengabeko prestakuntza eskariak
- Lanaldia luzatzea eta ordutegiak aldatzeko prestasuna eskatzea, kontratuan ezarritakotik haratago

Eskubide sozialak mugatzea

- Langabezia prestazioa jasotzeko eskubidea mugatzea
- Erretiroa jasotzeko eskubidea mugatzea
- Gaixotasun eta amatasun prestazioak jasotzeko eskubidea mugatzea

4.2 Enpleguaren prekarietatearen kausak eta ondorioak

Langabezia igotzea prekarietatea agertzearen kausetako bat da; izan ere, langabezia dela eta langileek enplegatzaileen aurrean duten posizioa ahultzen da, eta enplegatzaileek horren erakargarriak ez diren lanpostuak eskain ditzakete. Baina badaude beste azalpen batzuk ere:

- Teknologikoak eta produktiboak: enpresek, aldaketa teknologiko eta produktiboetara egokitzeko, langileak era malguagoan erabiltzeko beharra dute. Horretarako, langile gune egonkor bat sortzen dute eta, eskaria igotzen denean, lan periferietara (lanaldi partzialeko langileak, behin-behineko langileak, azpikontratatuak, aldi baterako laneko enpresen bidez kontratatutakoak, langile autonomoak) jotzen dute; baina eskaria jaisten denean, bigarren taldeko langileak lanik gabe gelditzen dira. Zerbitzuen

hazkundeak ere enplegu forma atipikoak bultzatzen ditu, zerbitzuen parte handi batean produkzioa eta kontsumoa batera gertatzen baitira.

- Ekonomikoak: 80ko hamarkadatik aurrera, politika ekonomikoak eskaintzari begira jarri eta eskaria areagotzeko politikak bertan behera gelditu ziren, enpleguan negatiboki eraginez. Gainera, lan faktorearen kostuak merkatzen hasi ziren, kanpo eskaria bultzatzeko.
- Instituzionalak: Estatuak rol aktiboa hartzen du enplegu modu prekarioen garapenean, laneko legedian pizgarriak eta aldaketak barneratuta.

Ondorioei dagokienez, lan prekarietateak esan nahi du pertsonen integrazio soziala bultzatzen duten funtzioetako batzuk betetzeari uzten diola enpleguak. Enplegu batzuek ez dute erreferentziazko gizarteko estandar arrunten arabera bizitzeko adina baliabide ekonomikorik ematen, baina lan prekarietatea hori baino gehiago da. Eta zentzu horretan, nabarmen igo da langile pobreen (pobrezia atalasetik beherako errenta maila duten etxeetan bizi direnak) eta soldata txikiko lanpostuen (erreferentziazko herrialdeko batez besteko soldataz azpikoa) kopurua. Gainera, enplegu prekarioaren parte batek ez ditu betetzen pertsonen legitimazio soziala, estatusa, identitatea eta baliagarritasun zentzua emateko ezaugarriak (ikus 1. taula).

Egile batzuen arabera, klase sozial berri bat jaio da: prekarioena. "Klase" ezaugarriak ditu Standing-ek⁶ azaltzen duen moduan, eta argi eta garbi bereizten da proletarioetatik:

- Proletarioekin gertatu ohi denaren aurka, prekarioek segurtasunik gabeko enplegua dute, ezegonkorra, berehalakoan aldatzen dira lan batetik bestera, sarritan osoak ez diren kontratuekin edo agentzien bitartekaritzarekin negoziatutako lanpostuetan aritzera behartuta.
- Gainera, prekarioek, garai bateko proletarioek ez bezala, beren itxaropenak betetzen dituzten lanpostuetan eskatuko dietena baino heziketa eta prestakuntza maila handiagoa dute. Ezaugarri hori guztiz berria da historian. Izan ere, ez du zerikusirik proletario klasikoaren ezaugarriekin. Proletarioek, kasurik onenean, ofizio bat ikasten zuten edo trebetasun bat garatzen zuten oso gazterik eta, trebeak baziren, ofizialek artisau izatera eta artisau izatetik maisu edo gainbegirale izatera igaro zitezkeen; baina prekarioak trikimailu ugari ikastea eta berrikastea eta trebetasun sozial, emozional eta komunikaziokoak garatzea espero du, proletarioaren edozein eskakizunetatik haratago.
- Prekarioek baliabide asko erabili behar izaten ditu lan ordaindu gabea, «lana bilatzeko lanean»; proletarioek inoiz egin behar izan zutena baino askoz gehiago oro har. Azkenok esplotatuak ziren lantokian, lan denbora ordainduan. Baina gaur egungo prekarioak buru belarri aritu behar izaten du, lan denboran ez ezik, baita lanordu eta lanegun ordainduetatik kanpo ere. Gainera, beren lana egiteaz gain, denbora asko ematen dute lana bilatzen (izapide burokratikoak egin, ilaretan egon, inprimakiak bete, birziklatu, etab.). Faktore horiek direla eta, prekarioek produkzio erlazio bereizgarriak dituzte.

⁶ Standing, G. (2011). *El precariado: una nueva clase social*. Ediciones de Pasado y Presente.

1. taula. Enpleguaren funtzioak

Sozioekonomikoak	Psikosozialak
Produkzioa-banaketa-kontsumoa zirkuiturako sarbidea	Autonomia finantzario, ideologiko eta morala
Errentaren banaketa sozialerako instituzioa	Jarduera pertsonalaren egituratzailea
Sozializazio eragile sekundarioa	Estatus, rol eta identitate iturria
Produkzio bidea eta pertsonen arteko harremanen erregulazioa	Asmoak, planak eta itxaropenak garatzeko aukera
Denborak eta espazioak antolatzeko mekanismoa	Baliagarritasun pertsonalaren pertzepzioa garatzeko bidea
Legitimazio sozialerako funtsa	Bizitzari zentzua emateko bidea
	Afiliazio, lotura, parte-hartze, komunikazio eta elkarrekintza testuinguruen sortzailea eta bultzatzailea

- Iturria: Andaluziako Enplegu Zerbitzua, 2009: 75.

Ikuspegi sozialetik negatiboak diren ondorio horiez gain, adierazi beharra dago enpleguaren prekarietateak ondorio negatiboak izan ditzakeela ikuspuntu ekonomikotik ere. Zehazki, lan prekarietateak enpleguaren segurtasunik eza dakarrenez, enpresen lehiakortasuna areagotzeko oztopoetako bat izan daitekeela jotzen da.

4. Oinarrizko bibliografia

Palacio, J.I. eta Álvarez, C. (2004) *El mercado de trabajo: análisis y políticas*. Akal. Madril. 3. kap.

Recio, A. (1997) *Trabajo, personas y mercados. Manual de Economía Laboral*. Icaria. Bartzelona. 8. kap.

